





















H-43728

ATV

R-44976

21626



MISIOETACO CANTABERRIAC

TA INDULGENCIA PLENARIAC

EDO BARCAMEN OSOAC


Misioetan irabaci ditezqueanac.



Bear dan licenciarequin.

TOLOSAN:

Andres Gorosabelen moldeteguian.



1.^a Misio Santuco dotrina ta sermoi batzuec adituta confesatu ta comulgatu ezquero edocein Elizetan ta egunetan errezalcen dirala sei Aita Gurea, Ave Maria, ta Glori Patri &.^a Eliz Ama Santuaren premiatic gatic.

2.^a Beste bi, bata oraingoraco, ta bestea eriotzaco orduraco confesatu ta comulgatu ezquero misioan ematen dan comunio generalean. Oec irabazteco confesioa eguin diteque edocein Elicetan, baña Comunioa, ta Eliz Ama Santaren premiatic gatic estacioa Eliz artan bertan.

3.^a Aita Santu Pio bederate
garrenac emana.

4.^a Purgatorioco animentzaco
emana, misio santuaren azque
nean eguiten dan funcioan irabac
ditequena.

Gañera indulgencia particular-
rac irabaci ditezque ecin contala
misio santura etortcearequin, be-
ren echecoac biraltcearequin, e-
torri ditecela esanarequin, ta bes-
te edocein obra on eguiñarequin.

Oec diranac irabaci ditezque
Purgatorioco animac gatic.

Ala diote Aita Santu ascoren bul-
dac.

5

MISIO SANTUAREN

CANTA.

1.º

Becataria: beguira ezazu
Jaun onen biotzagana,
Zabal-zabalic emen daucazu
Barcatu nairic gaur dana.

Eranzulen da.

*¡Ay bada Jesus! ezaguturic
Gure becatuac milla ,
Emenchen gatoz humillaturic
Zure graciaren billa.*

2.º

Beguira contuz egun oetan
Zure concienciari,

6

Ta izango dezu asco aldetan
Gaiztaqueria ugari.

3.º

Aspaldi-icusten bai cituan
Jaun onec becatariac,
Egon oi zala ecin sufrituan
Gure esquergabequeriac.

4.º

Biotz gogorra izan badezu
Jaun onentzaco zuc beti,
Biguntzallea ona emen dezu
Nai bacenduqne gogoti.

5.º

¿Cer dezu arren ez damutzeco
Becatu oec eguina?
Jaun onec bada, zu ondutzeco
Eguiten du aleguina.

6.º

Ez bazaituzle orain esnatzen
Artzai onen dei gozoac,

7

Ala dituzu gogoz penatzen
Bere entraña amorosoac.

7.º

Atoz nigana esaten dizut
¡Ardi galdua! benetan,
Órdu artatic artuco zaitut
Nere beso zabaletan.

8.º

¡Oh amodio zoragaria!
Pocez betea gaur cera,
Nere anima urricarria
Ecarri dezu mendera.

9.º

Esquerrac milla asi cera artcen
Jaun Ceruco onen partetic,
Cergatic ceran gaur ateratcen
Etsai gaiztoen artetic.

10.

Ceruan berriz da celebratcen
Becatuaren damua,

8

Aingueru ascoc dule cantalcen
Gaur artcen dezun asmoa.

Azquenean cantatzen diranac.

Virgiña gogo onetic
Dezazun aditu,
Cantu au biolcetic
Escaintcen dizugu.

Eranzuten da.

Ea bada Maria
Ez guretzaz aztu,
Orain, guero, ta beti
Ampara gailzazu.

Grutcearen oñean
Ciñala chit estu,
Jesusen encargu bat
Cenduan zuc artu.

9

Semeac gurulcetic
Cizun encargatu,
Zuc bear guinduzula
Gu semetzat artu.

Negarrezco balle au
Destierro bat degu,
Non zure bearrean
Arquitcen guerán gu.

Becatuan guiñala
Gu guztioç sortu,
Zuc Virgiña Maria
Chit ondo daquizu.

Becatarien Ama
Baldin bacera zu,
Ona gu aundienac
Emenchen gauzcazu.

10

Becatulic garbitcen
Zuc ezpagaituzu,
Gauza onic gugandic
Icusico ez dezu.

Becatuzco arbolac
Frutu onic ez du,
Graciarequin Ama
Chertatu gaitzazu.

Becatua nai degu
Oso gorrotatu,
Ezdegu nai gueyago
Gaitzac menderatu.

Maria nai zaitugu
Munduan amatu,
Eta guero Ceruan
Betico alabatu.

11

Baña zu amatceco
Guera gu izozlu,
Cerren becatua dan
Guretzaz jabetu.

Gure biotza ez dedin
Osoro gogortu,
Becatutic Maria,
Aparla gaitzazu.

Becatua gugandic
Dedin desterratu,
Zure amodioac
Bear gaitu sutu.

Zurequin gabiltzala
Sinistatcen degu,
Ecingo gaituala
Elsayac gu galdu.

Elsairic aundiena
Araguia degu,
Onezaz deabrua
Baliatcen zaigu.

Bi oyec comunquiro
dute alcar artu,
Gende asco onela
Infernuan sartu.

Oyec garailceco arma
Virgiña cera zu,
Oyen contra zurequin
Izan gaitecen gu.

Oyec menderatceco
Zu bear zaitugu,
Cerren guerenez aulac
Viciro guerán gu.

13

Irugarren elsaya
Mundu char au degu,
Nondic nai gure contra
Beti ari zaigu.

Bere alde ibillita
Gaizqui pagatcen du,
Pagamentu onican
Inondic ere ezdu.

Obra onac munduac
Chartzat artcen ditu,
Onac diran guztiac
Perseguitcen ditu.

Onetan cristau onac
Bear dute poztu,
Cerren Jesusec ala
Encargatcen ditu.

Jesus bera munduac
Zuan perseguitu,
Argatic bada zuan
Ill, ta enterratu.

Jesusequin ceruan
Izan nai badegu,
Beraren ancecoac
Izan bear degu.

Munduac perseguitcen
Gu baldin bagaitu,
Jesusenac gueraden
Señalea degu.

Persecucio onetan
Cristabac gogortu,
Munduco esamesai
Belarriac gortu.

15

Trabaju mola oyetan
Guia eta buru,
Jesusequin Maria
Artu bear degu.

Urteren batzuetan
Izateac santu,
Irauten ezpadegu
Balioco ezdu.

Biotcez nai duanac
Ceruetan sartu,
Azquen azqueneraño
Iraun bearco du.

Ea bada Cristabac
Atera orain contu,
Ceru, edo infernua
Bietan bat autu.

Jangoicoac salba zaitzala Erreguina,
Misericordiaren Ama.

A. Bicitza, dulzura, ta gure esperantza
Jangoicoac salba Zaitzala
Zure deyez gaude.

A. Evaren ume desterratuac,
Zu gana gaude suspirioz,
Sentimentuz, eta negarrez.

A. Negarrezco balle onetan
Ea bada señora
Gure Abogada.

A. Ytzuli itzazu gugana
Zure begui urriquitsu oriee.

A. Eta destierru au igarota,
Eracutsi eguiguzu Jesus,
Zure sabeleco Frutu
Bedeincatua.

A. A. ; O Clementisima!

A. A! ; O Piadosa!

¡O Dulce Virgíña Maria!

Erregutu ezazu gugatic
Jangoicoaren Ama santa.

A. A; Mereci dezagun
Alcanzatzea.

A. Jesu Cristoren promesac Amen Jesus.



